



UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra: Ez-Ohikoa eta Premiazkoa
Deialdia: Lehena
Eguna: 2013/11/18
Ordua: 14.00 – 14.16
Lekua: Izurtzako Udalbatza aretoa

Bertaratuak:

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn (ALKATEA. BILDU)

PEDRO JOSE JAYO GOROSPE.jn (BILDU)

NEREA ZARRABEITIA ASUETA. and. (BILDU)

OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn (EAJ-PNV)

ETOR GORROÑO GEREDIAGA jn (EAJ-PNV)

Ez bertaratuak:

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn (BILDU)

JOSE MARÍA ALBERDI GORROCHATEGUI jn (BILDU)

Idazkaria: David Álvarez Martínez



Aztergaiak

- 1.- Saioaren eta gaien premiari buruzko adierazpena.
- 2.- Erralde Durangoko Hiltegi SL-ko zorra beregain hartzea, hala badagokio, onartzea.
- 3.- 22013-2 kreditu aldaketa, hala badagokio, onartzea.



Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Saioaren eta gaien premiari buruzko adierazpena.

Alkate jaunak hitza hartu du eta horrela azaroaren 28eko 2568/1986 Errege Dekretuaren 83. artikulua, hau da, Toki Erakundeen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoa onartzen duenak, xedatutakoa betearaziz Izurtzako Udalbatza Osoak saioaren premia eta hurrengo gaien premia onartu beharko ditu. Premia dator hurrengo arrazoitik dator: Izurtzako Udalak Erralde Durangoko Hiltegia SL Sozietate Publikoaren kide zenez confort letter bat sinatu zuen sozietateak bere hiltegiako aktibitatea garatzeko eskatutako maileguren zati bat bermatzeko. Esandako sozietateak likidazioan dago eta pasadan ostegunean esan ziguten udalak aurre egin beharreko zenbatekoa. Hasiera batean, banketxeek 2013ko abenduaren 9arte epea ematen dute zorra ordaintzeko eta %5 eguneroko interesa kobratzen digute. Gauzak horrela, eta kreditu aldaketa bat egin behar dugunez, kreditu gehigarriko modalitatean, eta hark jendaurreko 15 eguneko epea egotea behartzen duenez, justu gabilta abenduaren 9ra heltzeko. Era berean gero eta arinago ordaindu, orduan eta interes gutxiago ordainduko dira.

Gorroño Gerediaga jaunak hitza hartu du eta galdetu egin du 2013ko irailaren 4tik bazekiten aurre egin beharreko zenbatekoa zenbat zen, zergatik urrian egindako ogasun batzordera ez zen informazio guzti hau ekarri.

Alkate jaunak erantzun dio pasadan osteguneko informazioa dela. Irailaren 4tik bazekiten udalek zorra bere gain hartuko zutela, baina ez azkeneko zenbatekoa zenbat zen, banketxeek proposamena onartu behar baitzuten.



Gorroño Gerediaga jaunak hitza hartu du eta egindakoaren berri inork ez diela informatu esan du.

Alkate jaunak erantzun dio ezin izan duela zehazki informatu inork ez baitzekien azkeneko egoera, zeren eta hau aldatzen joan da. Abadiñok ez duela ordainduko esan du. Elorriok ere arazoak jarri zituen,...Gauza da negoziatzen joan garela eta guzti honen berri Zarrabeitia jaunari eman zaio.

Zarrabeitia Asueta jaunak garrantzitsuena zorra kentzea dela. Bagenekien likidazioan geundela. Nahiz eta azken orduan zenbatekoa jakin, Izurtzak sozietatean daukan partizipazioaren arabera eta dagoen zorraren arabera, bazekiten gutxi gora behera zenbatekoa izango zen azkeneko zenbatekoa eta hori informatu behar zutela esaten dute. Era berean sozietatearen likidazioaren berri eskatzen dute.

Alkate jaunak hitza hartu du eta likidazioa egin gabe dagoela esan du, zenbait lits lotu gabe daudelako. Orain maileguak kitatuko dira, ez sozietatea, eta beraz maileguak ordainduta geldituko lirateke.

Gorroño Gerediaga jaunak hitza hartu du eta sozietatearen aktiboengatik galdetu egin du.

Alkate jaunak erantzun dio Berrizen dauden lurrak direla eta hauek salmentan jarriko dira. Saltzen direnean udal bakoitzak bere parte jasoko du. Lehenengo eta behin lur horiek udal guztion izenean eskrituratu beharko dira, horrela Erraldek maileguen ordainketa beraien gain hartzeagatik udalekin daukan zorra kitatu dadin.

Gorroño Gerediaga jaunak hitza hartu du eta emango diren pasuen berri beraien ematea eskatu egin du.

Beste inork aipamenik egin ez duenez Udalbatzak, aho batez, saiaren premia eta bigarren eta hirugarren puntuak premiazkoak jo ditu.



2.- Erralde Durangoko Hiltegi SL-ko zorra beregain hartzea, hala badagokio, onartzea.

Inork aipamenik egin ez duenez Udalbatzak bertaratutako kideen gehiengoz, aldeko 3 boto (BILDU U.T.) eta 2 abstentzio (EAJ-PNV U.T.), ondorengoa onartu egin du:

Erralde Durangoko Hiltegia SL Sozietate Publikoko akziodunak, Izurtzako Udalak horren parte izanik, hartutako erabakia ikusita, non eta esandako sozietateak Caja Laboral Popular eta Banco Bilbao Vizcaya Argentariaekin zeukan zorra bir-antolatzea erabakitzen den eta akziodunak diren udalek esandako zorrari aurre egingo dioten sozietateren sozialean daukaten partaidetzaren proportzioan erabakitzen den.

Kontuan hartuta abenduaren 26ko, 9/2005 Arau Foralaren 55. artikulua ondorengoa xedatzen duela: Azken ekitaldiko aurrekontuen likidazioa, emaitza arruntak eta jarduera arruntaren emaitzak islatzen dituzten finantza-orrietatik aurrezki garbi negatiboa ondorioztatzen denean, ezin izango da epe luzerako kreditu eragiketa berririk itundu Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunen baimenik gabe, kontratuko baldintzak aldatzen dituzten eragiketak edo, hirugarren batzuen bitartekotzarekin edo gabe, berme osagarriak gehitzen dituztenak barne. Egoera horretan ezin izango da abalik eman ere, ezta toki erakundeek, beren erakunde autonomiadunek, enpresa-erakunde publikoek eta menpeko merkataritzako sozietateek lehenago itundutako kreditu eragiketak ordeztu ere, baldin eta gehienbat merkaturako diru-sarrerekin finantzatzen ez diren zerbitzuak eman edo ondasunak sortzen badituzte.

Kontuan hartuta abenduaren 26ko, 9/2005 Arau Foralaren 55.3 artikulua ondorengoa xedatzen duela: Edonola ere, aurreko ekitaldian, edo, halakorik ezean, ekitaldi horren aurrekontua likidatu ez delako, horren aurrekoan, likidatutako diru-sarrera arruntaren %10 gainditzen duen zenbatekodun epe luzerako kreditu eragiketa berriak ituntzeko, nahitaezko txosten bat —loteslea izango ez dena— eskatu beharko zaie Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunei. Txosten horretan zorpetze berriak erakundearen aurrekontuetan izango duen eragina aztertuko da.

Kontuan hartuta abenduaren 26ko, 9/2005 Arau Foralaren 55.9 artikulua ondorengoa xedatzen duela: Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunek kapitulu honetan araututako eragiketen berri izan beharko dute arauz ezarritako eran.



Kontuan hartuta 2012ko likidaziotik datorren Izurtzako Udaleko aurrezki garbia positiboa dela eta zor eragiketa 2012ko ekitaldian likidatutako diru sarrera arrunten %9,23 dela.

Esandako Aurrekariak eta arauak ikusita, Izurtzako Udalak ondorengoa onartzen du:

Lehenengoa.- Erralde Durangoko Hiltegia SL Sozietate Publikoko beregain hartzea udalak daukan partizipazioaren proportzioan, 57.878,09€ izanik.

Bigarrena.- Ebazpen honen berri Bizkaiko Foru Aldundiari ematea.

3.- 2013-2 kreditu aldaketa, hala badagokio, onartzea.

Idazkari Kontu Hartzaileak hitza hartu du eta 5/2013 Arau Foralak esaten duenaren arabera 2013ko azaroaren 15ean egindako txostenaren berri eman du. Zehazki 6.5 artikulua arabera egingo den kreditu aldaketa ez du finantza jasangarritasuna kolokan jartzen zeren eta sortuko den zorra 2012ko ekitaldian likidatutako diru sarrera arrunten %9,23 delako eta aldaketa indarrean sartzen den une berebean kenduko delako, beraz 2013 urtea zorrik gabe itxiko da.

Beste inork aipamenik egin ez duenez Udaltzat bertaratutako kideen gehiengoz, aldeko 3 boto (BILDU U.T.) eta 2 abstentzio (EAJ-PNV U.T.), ondorengoa onartu egin du:

Lehenengoa.- Izurtzako Udaleko aurrekontuetan eragina daukan kreditu aldaketaren espedientea onartzea kreditu gehigarrien modalitatean, ondorengo proposamenaren arabera Kapituloki honela laburbiltzen dena:

Gehitzen diren Kredituak

Gastu Kontzeptua	Gastu Kontzeptua	Gastu gehigarriak
010.933.00	Amortización deuda Erralde	57.878,09€
010.310.02	Intereses Prestamo	2.894,91€
Guztira		60.773€


Fintzatuko duten errekurtoak

Diru Sarrerak	Baliabide Kontseptia	Gehitzen diren errekurtoak
87000	Remanente de tesorería	60.773€
Guztira		60.773€

Bigarrena.- Hamabost eguneko jende aurreko epea irekitzea erreklamazioak aurkeztu ahal izateko. Epe horretan erreklamaziorik ez balego, akordio hau behin betikoa izango da,. Espedienteari Aurrekontu Orokorra onartzeko beharrezkoak diren izapide guztiak emango zaizkio.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

Idazkaria



O. E.

Alkatea



IZURTZA
UDALA